

Euskal administrazioetako diru-sarrerak %1,6 gehitu ziren 2014an

Aurrekontu saldo ez finantzarioak 71 milioiz egin zuen hobera

Euskal Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udal administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gairdiko eta azpiko erakundeekin batera) diru-sarrerara sendotuak %1,6 gehitu ziren 2014an.

Diru-sarrerak batez ere eragiketa korranteengatik eta zergengatik gehitu ziren (%3,3); kapital eragiketengatikoak %16,0 gutxitu. Guztira, ez-finantzetako eragiketengatiko diru-sarrerak %2,7 gehitu ziren 2013aren aldean. Finantza-eragiketengatiko eskubide onartuak %9,2 gutxitu ziren; batez ere finantza-pasiboak 2013ko 1.549,3 milioitatik 2014ko 1.419,8tara jaitsi zirelako.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2013-2014

mila euro	2013	2014	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	16.316.235	16.560.959	1,5
Eragiketa Arruntak	14.183.432	14.658.236	3,3
-Zerga Sarrerak	12.549.144	13.111.861	4,5
PFEZ	4.374.631	4.405.555	0,7
Sozietate-zerga	1.264.224	1.189.093	-5,9
BEZ	4.379.308	4.943.387	12,9
Zerga Bereziak	1.384.829	1.354.121	-2,2
Udal-zergak	687.515	694.869	1,1
Bestelako Zergak	458.637	524.836	14,4
-Bestelako sarrera arruntak	1.634.288	1.546.375	-5,4
Kapital-eragiketak	499.854	419.767	-16,0
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	14.683.286	15.078.003	2,7
Finantza-eragiketak	1.632.949	1.482.956	-9,2
GASTUAK GUZTIRA	15.682.798	16.182.451	3,2
Eragiketa Arruntak	13.198.269	13.463.324	2,0
Langileria Gastuak	3.357.209	3.415.613	1,7
Transferentzia Arruntak	4.476.192	4.570.304	2,1
Bestelako Gastu Arruntak	5.364.868	5.477.407	2,1
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	1.590.603	1.649.566	3,7
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	14.788.872	15.112.890	2,2
Finantza-eragiketak	893.926	1.069.561	19,6
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	985.163	1.194.912	21,3
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	-105.586	-34.887	-67,0


Iturria: EUSTAT. Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak

Gastuak %3,2 gehitu ziren 2014an. Eragiketa korranteengatiko obligazio onartuak %2,0 gehitu ziren 2014an. Pertsonal-gastuak -gastu guztien %21,1- %1,7 gehitu ziren; transferentzia korranteak - gastu guztien %28,2- %2,1 gehitu 2013aren aldean. Beste gastu korranteak %2,1 gehitu.

BEZ eskubide onartuak 2014an %12,9 gehitu, zerga diru-sarreraren %37,7 izan zirelarik. Garrantzian bigarren (%33,6) PFEZ, zeina %0,7 gehitu baitzen. Hirugarren Zerga Bereziak (2014an %-2,2) eta laugarren Sozietateen Zerga (%-5,9). Udal zergak %1,1 gehitu ziren.

Diru-sarrera ez-finantzarioak %2,7 gehitu ziren eta gastuak %2,2; ondorioz, Aurrekontu saldo ez-finantzarioak hobera egin du, 71 milioiz; 2013an -106 milioi, 2014an -35 milioi.

1. grafikoa. Euskal administrazioen zerga sarreraren banaketa. 2014 (%)



Iturria: EUSTAT. Sektorre publikoaren aurrekontuen estatistikak

Euskal Administrazioetako zor bizia, 10.469 milioi 2014ko abenduaren 31n. 2014ko pasibo berriak, 1.382,5 milioi; amortizazioak 839,9 milioi.

Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2014. urtea

mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	14.658.236	8.643.802	2.342.327	7.575.546	4.645.997
GASTU ARRUNTAK	13.463.324	8.577.986	2.182.584	6.875.994	4.376.195
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.194.912	65.816	159.743	699.552	269.802
KAPITAL SARRERAK	419.767	300.752	57.223	51.794	63.008
KAPITAL GASTUAK	1.649.566	936.841	120.551	382.094	263.090
AURREKONTU-SALDO EZ- FINANTZIARIOA	-34.887	-570.273	96.415	369.252	69.720
ZOR BIZIA (Amortizatzeke 14-12-31)	10.469.369	7.748.243	615.157	1.353.982	751.987

Iturria: EUSTAT. Sektoze publikoaren aurrekontuen estatistikak

Euskal Administrazioetako (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udal administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gaindiko eta azpiko erakundeekin batera) langile kopurua 2014ko abenduaren 31n, 67.610 pertsona. Euskal sektoze publikoaren parte diren gainerakoak gehituz gero -sozietate publikoak, irabazi asmorik gabeko fundazio eta instituzioak, unibertsitatea eta beste erakunde publikoak- 123.747 langile.

Emakume eta gizonen banaketa, aurreko urteetan bezalaxe: %61,1 emakumeak, %38,9 gizonak. %68,2 langile finkoak ziren.

Informazio gehiago.

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

EUSKAL AEko SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKEI BURUZKO PRENTSA-OHAR
GEHIAGO

EUSKAL AEko SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKEN GAINEKO DATU-BANKUA